

## ESTRUKTURAK

*Estrukturak* eskultura sail edo serie bat litzateke, 1982. urtetik 1989. urtera luzatzen den denbora-tartean osatua. Besteak beste, esploratzeko gai bat izan zen. Une hartan gorputz biluziak, anatomia, interesatzen zitzaizkidan; bide horretan koka genitzake nire ikerketak. Orduan, baina, artean ez nekien ikerketa bat zenik edo urte mordo bat pasako zenik ere, *ezta?* harik eta berriz bueltatuko nintzen arte horra.

Hortaz, ideiarene ardatza hori zen. Alde batetik, denbora gutxi zen arte munduan hasia nintzela eta hori menperatzea ere, anatomia etab. prozesu bat izan zen niretzako. Testuinguru horretan sortu nituen lehendabiziko piezak. Tenplea erabili ohi nuen polikromatzeko (pigmentua arrautzarekin nahastean datzan teknika), eta gorputz hauek estruktura baten baitan sartzea zen nire asmoa. *Zergatik eskstrukturak?* Eskulturetan ez nuen gorputz osoa erakutsi nahi, zati bat soilik baizik, zati horrek bere horretan aukera narratiboak zituelako gorputz osoaren adierazpen gisa. Horrez gain, mugimendua sartzeko saiakera ere hor legoke.

1982tik 1983ra bitartean, urteak zehatz-mehatzak ez diren arren, estrukturak ere erditik mozteari ekin nion eta desplazamendu batzuk sortzeari. Desplazamendu horiek, egia esan, gerora ere jarraitu zuten beste zenbait eskulturetan; alegia, ez ziren estruktura gaietara bakarrik mugatu.

Buruan ideia hau nebilkienean, beti informazioa bildu ohi dugu kanpotik, ezta? Ez dakizunean, nonbait begiratu beharra dago eta batzuetan ikasi ohi da gainontzean norbere kabuz deskubrituko genukeena baino askoz ere gehiago kolpe batean.

Kanpoko iturri horietako bat izan zen Francis Bacon margolaria. Izan ere, berak ere estruktura batzuk sortzen zituen. Hari buruz ari garenean, orokorrean, bere figurak nola dauden izan ohi dugu hizpide... figuraren inguruan marraztuta dagoena, ordea, beti izan ohi da estruktura. Eta estruktura horrek badu funtzio bat: figura nonbait kokatzea, espazio konkretu batean. Hauxe zen, nolabait, niri eskultore bezala ere interesatzen zitzaidana. Bestalde, Baconek beste keinu batzuk ere erabili ohi zituen, adibidez, halako gezi txiki batzuk mugimendua adierazteko, edo hobeki esanda, mugimenduaren sentsazioa areagotzeko. Erreferentzia hori ere hartu nuen gogoan.

Era berean, bada beste artista bat aztertu eta aintzat izan nuena, nik uste bere zenbait egiteko modu etab. nireganatu nituela; Vladimir Velickovitz ari natzaizue. 1935ean da jaio zen Vladimir Velickovic, Yugoslavian. Hemen nahiko ezezaguna da, bere ibilbide artistikoa

Frantzian egin zuen. Iazko abuztuan hil zen. Nik bere lan guztiak ezagutu ditut. Marrazki lanak dira batik bat; baita pintura ere, baina marrazkilari gisa oso-oso trebea zen, oso esanguratsuak dira bere biluzi-gorputzak. Eta esango nuke margolari tragikoa zela. Yugoslavian nazien jazarpen eta sarraskiak bizi izan zituen eta hori guztia erabakigarria izan zen bere margotzeko moduaren garapenean.

Modu horretara, Velickovicen marrazketa —alde batetik biluziak irudikatzen zituen, eta bestetik animalia batzuk ere bai, arratoiak etab.,— interesatu egin zitzaidan. Halaber, artelan horiek bazuten erlazioa argazkigintzaren hasierako urteekin, hain zuzen, pertsonak, mugimenduak... edo zaldi baten mugimendua harrapatzea baitzen helburua. Eta, esan bezala, mugimenduaren adierazpena ere axola zitzaidan.

Honenbestez, nolabait ere, egiteko modu horiek denak elkartu ziren nire hastapeneko egiteko molde horretan. Beraz, aurrekari batzuk banituen.

Nire estrukturak, hasiera batean, biluziak izan ziren. Beste intentziorik ez zegoen: maitaleak, neskak, fisiokulturistak... edo antzerako gai atseginak irudikatzea baino. Gaiek, ordea, aldatzeari ekin zioten 1984-85 inguruan. Izan ere, aurrerantzean, kezkatzen ninduen egoera, bizi nintzen errealitatea, errepresentatzeari ekin nion: garaiko Euskal Herria. Urte zailak ziren eta handia zen biolentzia maila; etengabekoa. Gertatzen ziren estradizioak, manifestaldiak... Esate baterako, 1982ko krisi hura, industria-birmoldaketarena (ontziolak eta itxi zirenean) izan zen nik bizi izan nuen lehena.

Oraindik orain, nik uste horretan bizi izan garela, geroztik ez dagoela modurik hau bukatzeko.

Hala, lehen atseginak ziren biluziak biolentziarekin zerikusia zuten gorputz bihurtu ziren. Eta hori zen nik adierazi nahi nuena. *Estrukturak* sailetik kanpo ere landu nuen gai hau. Baina dagokigunera itzuliz, pentsatu nuen estruktura bidez, batetik espazioaren barruan leku konkretu batean kokatzen nuela gorputza, estrukturak ixten zuenez gero figura. Bestetik, ohartu nintzen mugimendua adieraz nezakeela estruktura horien desplazamendu batzuen bitartez.

Eskulturak ez daude erabat estrukturaren barruan, mugitzen ariko balira bezala baizik, beharbada, atera nahiko balute bezala. Gainera, definizio espazial batekin hasi nintzen lanean, narratiboki egoera jakin bat adierazteaz haratago, testuinguru historiko jakin bat markatzeko ere balio zidana. *Zabaltzaren* kasuan adibidez, txarrantxa edo alanbrearekin tortura eta aldi berean kontestu bat markatzen da, ezta?

1985-86ko bueltan, beste pertsonaia batzuk hasi nintzen lantzen eta jabetzen nintzen kontatzen ari nintzena nahiko krudela zela, oso espresionista. Nolabait, hasierako urteetan, ikasten ari zarenean, jendea harritu nahi duzu eta, orduan, gauzak ez dituzu egin ohi zuretzako bakarrik, baizik eta baita jendeak ikus dezan ere zertarako gai zaren eta abar. Halaxe erabaki nuen pertsonen errepresentazioak alde batera uztea eta hauen lekuan animaliak erabiltzea.

Marko hartan sortutako lehenengotako artelanek *Bi Haragi* seriean aurki daitezke: *Haragi I* eta *Haragi II*, biak ere egurrezko pieza handiak. Gai honek ere baditu aurrekariak Artearen Historian, Francis Baconen testuinguruan topa ditzakegu baina, historian atzerago eginez, baita Rembrandten testuinguruan ere. *Haragi II*ren kasuan, saiheskien partean giza esku bat jarri nuen zintzilik; gizakiaren, haragiaren eta biolentziaren arteko erlazioa azaleratuz, hau da, giza krudeltasuna agerian utziz. Bata zein bestea (*Haragi I* eta *Haragi II*) estruktura baten barnean kokatua zegoen. Nolabait esateko, bazegoen definizio espazial bat; eta horrez gain, plakato bana zuten eta bazirudien hauei odola zeriela.

Horrelaxe osatu nituen pieza gehienak. Kasu batzuetan, zaharberritzen ari garen *Le poupe* artelanean esaterako (eskultura “atseginen” artean azkenekotarikoa), elementu batzuk inkustratuta azaltzen dira eta espazioaren, estrukturaren, definiziorik ez dago. Figurak ez daude osorik, moztuta baizik, baina antzematen dira.

*Le poupe* artelanean emakume bat ageri zaigu, galtzerdi bat kentzen ari dena, eta kandela bat du inkustratuta aldamenean. Tankerako piezek, gehiago ere bazeuden, hein batean *le object trouve* kontzeptuarekin izango lukete lotura, hau da, *aurkitutako objektuekin*. Esan genezake, akaso Marcel Duchamp izan zela hori asko zabaldu zuena. Eta nik ere horrelako objektu batzuk sartu nahi nituen, egunerokotasun horretara hurbiltzen gaituztenak. Kasu honetan, kandela bat sartu nuen norbaiten intimitatean; biluzten ari da eta hortxe kokatu nuen objektu bat.

Bada beste kasu bat, estrukturarik gabekoa, *punkiarena*, hain zuzen ere. Ez nintzen punkia baina punkien mugimendua ere ezagutu nuen. Azken batean, gizartean gertatzen ari ziren gauza horietatik guztietatik ere jasotzen nintuen erreferentziak edo ideiak. Artelan batean, bada punki bat eta barruan zerbeza lata zanpatu bat, han sartuta. Esan nahi dut, aurkitutako objektu hauek ez zirela agertu soilik hemen, baizik eta bazirela honekin batera zetozen beste serie edo beste lan batzuk ere.

Beharbada, serie honetako pieza handienetarikoa *Hermafrodita* zen. Honekin batera *Zaldi II* aurkeztu nuen San Telmon. Hamar artista gipuzkoar, hamar eskultore gonbidatu gintuzten. Oso eskultura handia, hiru metro inguru luze zen, eta orduko teknologia (telebistak

ere azaltzen ziren), eta gaurkotasuna duten kontuak biltzen zituen (trans, gay... gaiak). Era berean, bazuen definizio espazial bat: luma bat. Ez dakit, akaso interpretazioa zeharkakoa da...

Biltegitik berreskuratu dudan azken piezari dagokionez, *Zaldi IV*, bozetoa baino ez dut, dirudienez, azkenean ez nuen gauzatu. Tamaina erreala baino pixka bat handiagoa da, eta bularraldean objektu bat dauka sartuta: hontza. Ez dezala inork pentsa hontza akabatu nuenik eta diseinatu. Ez, lagun batek, taxidermista munduan asko zebilenak, horrelako gauza batzuk zituen botatzeko eta niri iruditzen zitzaidan merezi zuela material horrekin zerbait kontatzea. *Zaldi IV* gudarekin lotutako pieza bat litzateke, biolentziarekin ere bai. Hori beti erlazionatu izan dut gauarekin, iluntasunarekin, eta horregatik dago hontza hori. Zaldiaren azpian, zeren berez zaldia airean geldituko litzateke, mekanismo elektriko pila bat dago. Eta badu zerikusia *objet trouvé* horrekin.

Hauxe izango litzateke, gutxi gorabehera, *estrukturak* sailari buruz nik gogoan dudana.